



MUTUAK

IGANDEAN BIZIKLETAREKIN
ERRENIEGAN ERORI NINTZEN ...
SEKULAKO KOLPEA ...
LEPAUZTAIA TXIKI-TXIKI EGINDA



ENE BADA ... EZIN DA ETA
KIROLARIK EGIN ...
BADAKIZU BERANDU
BAINO LEHEN MUTUATIK
HOTS EGIN
DIEZAZUKETELA?



ZER DIOZU? NAHIZ ETA ISTRIPIUA
LANEKOA EZ IZAN? EZ ADARRIK
JO, ETA HORI NOIZTIK?



EZ DA EGIA
IZANGO. ETA HORI
NOIZTIK?



HORIXE BERA. EDOZEIN
MUSKULU EDOTA ESKELETO-
NAHASMENDUAREKIN, LAN-
JATORRIKOA EZ IZAN ARREN,
OSPITALERA JOAN
BEHARREAN, MUTUARAJOATEN
ZARA. HONEKIN HASI ETA
GERO GAIXOTASUN
ARRUNTEKIN JARRAITZEA DA
ASMOA: GRIPEAK, KATARROAK
... (*)

2023KO MAIATZEAN AKORDIO
BERRI BAT SINATU ZEN
MUTUEKIN, NAHIZ ETA
NAFARROAN PARLAMENTUAK EZ
ZUEN ONARTU, BERAZ,
ORAINDIK ERE EUTSI EGITEN
DIOGU ... BAINA OSO ADI EGON
BEHAR DUGU.



(*) ENPLEGURAKO ETA NEGOZIAZIO KOLEKTIBORAKO V. AKORDIOA (AENC)

TIRA, EZ DAKIT ... MUTUETAN
AZKAR ARTATZEN BAZAITUZTE,
EZ DAGO GAIZKI, EZ?



BUFF, ARRAZOIA, HAN
BAI DAUDELA GAI
HAUEKIN IZORRATUTA.



EZ DAGOELA GAIZKI?
BADAKIZU ZER ESAN NAHI
DUEN HORREK? BA BI
OSASUN-SISTEMA EGONEN
DIRELA, AEBN BEZALA.

BAI, BIZTANLERIAREN
GEHIENGOAK HIPOTEKATU EGIN
BEHAR DU TRATAMENDUAK
ORDAINTZEKO ... HORIXE DA
MUTUAK SAIAITZEN ARI DIRENA
EGITEN: SISTEMA PRIVATU BAT
IZATEA BIZTANLERIA
AKTIBOARENTZAT ETA BESTE
BAT PUBLIKOA BIZTANLERIA
EZ-AKTIBOARENTZAT.



AITATXI-
AMATXIANTZAT,
UMEENTZAT ETA
HORRELA, EZTA?



BAI, BAINA BAITA LAN EGONKORRIK EZ
DUTENENTZAT ERE, IKASLEENTZAT ... ETA
IMAJINATUKO DUZU NORK ORDAINDUKO
DUEN BESTE SISTEMA PRIVATU HORI, EZTA?
SOSA OSASUN SAILETIK ATERATZEN DA. HAU
DA, OSASUN PUBLIKORAKOZUZENDUTAKO
DIRU PUBLIKOAREN ZATI HANDI BAT MUTUEN
BITARTEZ ERAKUNDE PRIVATUETARA JOANEN
DA ORAIN; BERAZ, AZPI-AZPITIK
HORNITUTAKO OSASUN SISTEMA PUBLIKO
BAT EGONEN DA. ORAIN ITXARON-
ZERRENDAK BALDIN BADIRA, IMAJINA EZAZU
ZER GERTA DAITEKEEN AUERRERAGO ...



TIRA, BAINA ZERRENDA HORIEK GUTXITUKO DIRA, EZTA? LANEAN ARI GARENOK, MUTUETAN ARTATZEN BAGAITUZTE ...

EZ. EZTA PENTSATU ERE. PIXKANAKA SISTEMA PUBLIKOAK BEHERA EGINEN DU ... GAINERA, PATOLOGIA KONPLIKATUENAK, HALA NOLA MINBIZIAK EDO TA GAIXOTASUN KRONIKOAK, EZ DITUZTE MUTUEK KUDEATUKO, OSPITALEEK KUDEATZEN JARRAITUKO DUTE.

ADOS ... BAINA GUTXIENEZ DOAKOAK DIRA, EZ?

BAI TO! ORAINGOZI! BAINA AURRERAGO ... ETA ZER EGINEN DUGU LANA GALTZEN BADUZU? EZ AL DUGU ESKUBIDERIK IZANEN KALITATEZKO OSASUNGINTZA IZATEKO? EDO ERRETIROA HARTZEN DUGUNEAN? BEHAR MEDIKUAK GEHIEN BEHAR DITUGUNEAN IZATEN DENEAN ... EDO ZER EGINEN DUGU LANAREKIN ZERIKUSIRIK EZ DUEN GAIXOTASUN KONPLEXUAGOREN BAT BADUGU? OSASUN PRIBATURA JOAN, PUBLIKOA DESEGINDA EGONEN DELAKO? BADA KIZU ZENBAT BALIO DUEN HORREK?

TIRA, NEURRI HANDI BATEAN ZERBITZU PUBLIKOAK JADA OKERRERA EGIN DUTE, EZTA? EZAGUTZEN DITUT KASU BATZUK EBAKUNTZA EGITEKO HITZORDUA HAINBESTE ITXARON ONDOREN, PRIBATURA JOAN DIRENAK. EDO ASEGURU PRIBATUA KONTRATATU DUTENAK.

JAKINA! HORI DA BILATZEN DENA ... NEGOZIOA NEGOZIOA DA

ZIUR HAU GUZTIA PUZTEN ARI ZARETELA ... CGT/LKN-KOAK ...

PUZTEN? GOBERNUAK DAGOENEO PROPOSATU DU AUTONOMIA-ERKIDEGOETAN!

BAINA ENPRESA PRIBATUEK KUDEATZEN BADUTE, HAIEN NEGOZIOA DA. EZ DUTE ERE HAIN GAIZKI EGINEN, EZTA?

EZ NIRI BARRE EGINARAZI ... BATETIK BESTERA GERO ETA DIRU PUBLIKO GEHIAGO JOANARAZI NAHI DUTE KUDEATU AHAL IZATEKO ... EDOZEIN AITZAKIA ONGI DATORKIE. SISTEMA ERABAT EZ-ERAGINKORRA SORTUKO LITZATEKE. BEGIRA:

ESPAINIAR ESTATUAN DAUDEN 20 MUTUETAKO 6 ZUZENDARIREN SOLDATAK GOBERNUKO PRESIDENTEAK KOB RATZEN DUENAREN BIKOITZA BAINO GEHIAGO DIRA. HOBEEKIEN ORDAINDUTAKOA MC MUTUALENA DA, 245.000€! PRESIDENTEAREN HIRUKOITZA IA!

ETA MUTUEN HERENA AUZITEGIE TAN DAUDE GIZARTE-SEGURANTZARI IRUZUR EGITEAGATIK

BAM!

MUTUA BATEAN EGON NINTZEN
AZKENENGOAN LEPOAN
UZKURDURA IZAN NUENEAN IZAN
ZEN. BADA KIZU ZER ESAN
ZIDATEN?

IMAJINATZEN DUT.
ADINAGATIK ZELA.

HALAXE DA. ZEINEN
ONGI EZAGUTZEN
DITUZUN ...

BAI, DENA ADINAGATIK DA
BETI ... EZ AL DU ZERIKUSIRIK
EGUN OSOAN BILTEGIAN
PISUA MUGITZEN ARITZEAK,
EZTA?

ETA GAINERA KOIPE
GUTXIAGO JATEKO ESAN
ZIDAN. AGUR
TXISTORRARI.

BEGIRA, ESTATU BAKARRA DA MUTUAK BEZALAKO ERAKUNDE PRIBATU
BATEK ERABAKITZEN DUENA LESIO BAT LAN-JATORRIKOA DEN ALA EZ.
BAKARRA. GAIXOTASUNEN LARRITASUNA TXIKIAGOTZEN DUTE LANEAN
LEHENBAILEHEN HASTEKO, TXOKE-TRATAMENDUAK, ALTEN %14A SOILIK
EGOKIAK DIRA IKUSPEGI KLINIKOTIK; KOMUNITATEEI HISTORIA
KLINIKOETARA SARTZEKO AUKERA ESKATU DIETE ... HAU EI EMAN BEHAR AL
DIEGU KONPETENTZIA GEHIAGO?

ETA ZER EGIN DAITEKE?

BADA, ESKATZEN DUTENAREN
KONTRAKOA. MUTUEN BALIABIDEAK
OSASUN-ZERBITZU PUBLIKORA
JOAN DAITEZELA.

BAI TO! ... ZEIN LEGEK
BAIMENDUKO DIZU HORI?

OSASUNARI BURUZKO 1986KO LEGE OROKORRA.
UBARMIN KLINIKAREKIN EGIN ZEN MOBILIZAZIO
HERRIKOI HANDI BATEN ONDOREN. PRIBATIZATZEKO
JOERA HAU GELDITU EGIN BEHAR DA. OSASUN
PUBLIKOA BERRESKURATU BEHAR DUGU, MUTUEK
KUDEATU EZ DEZATEN OINARRIZKO ESKUBIDE HAU.

MUTUAN IZANDAKO
ESPERIENTZIAK BILTZEN ARI
GARA. KONTATUKO DIGUZU
ZUREA?



NAFARROAKO
OSASUN
PLATAFORMAREN
MANIFESTUA



EZAGUTU ITZAZU
MUTUETAN DITUZUN
ESKUBIDEAK



CGT NAFARROA
CONFEDERACIÓN GENERAL DEL TRABAJO
LANAREN KONFEDERAKUNDE NAGUSIA
948224766
CGTNAFARROA@CGT.INFO



MUTUAN DATUAK
EZABATZEKO
ESKAERA



@cgtnafarroa



@cgtnafarroa